

ZUBEROA, POPULAZIO DENTSITATE APALEKO GUNEA

I. Zuberoan bizitzeko zailtasunak

Problematika

Zer dira mendialdean bizitzeko zailtasunak?




① Urdatx (Santa Grazi) Zuberoako herria



Zuberoak biztanleriaren erdia galdu du 1836az geroztik. Azken hogeitun urteetan 15.000 biztanletatik 12.600tara iragan da. Basabürüko dentsitatea 8 bizt./km²-koa da.

② Ipar Euskal Herriko biztanleria

Banaketa:



INSEE, biztanle kontaketa (2014-2020) Ipar Euskal Herriko ekonomia behatokia, 2023

Jakin ezazu

Dentsitate apaleko gunek kilometro karratuko 30 biztanle baino gutiago dituzten lekuak dira. Frantziako estatuaren azaleraren % 40 definizio horri doakio. Dentsitate apaleko gunetan, populazioaren % 6 baizik ez da bizi (4 milioi biztanle).

INSEE Frantziako estatistika eta ekonomia ikerketako erakundea

[Mendian bizi](#)


[Zuberoako laborantza](#)

③ Zuberoako dinamismo demografiko eskasa

	Zuberoa eta Nafarroa Behereko mendialdea	Ipar Euskal Herria	Frantzia
Dentsitatea	21,3 bizt./ km ²	100 bizt./km ²	118 bizt./km ²
Populazioaren bilakaera (2009-2014)	% 0	+ % 4,8	+ % 2,5
18-24 urte arteko biztanleak	% 5,7	% 7	
75 urtez goitiko biztanleak	% 14,5	% 12,3	% 9,3
Hilabete sariaren batez bestekoa	1.560 €	1.711€	1.797 €
Bigarren etxebizitzak	% 16	% 21	% 9,4

INSEE, Euskal Herriko Hirigune elkargoa, Lurraldearen argazki soziala (2018ko uztaila)

4 Medikuntza basamortua



La Soule veut lutter contre la fin du médecin de famille. En Soule, la famille des médecins se réunit pour tenter de pallier la fin du médecin de famille. (...) Cela pour lutter contre la désertification médicale et soutenir un service de proximité de la santé. L'été a charrié quelques angoisses, à Mauléon. Sur les six généralistes encore en activité, deux ont annoncé l'arrêt de leur activité à la fin de l'année. Un troisième au printemps. (...) Une des deux classes du regroupement scolaire Licq/Laguinge pourrait fermer à la rentrée 2017 si l'effectif passait en-dessous du seuil de 20 élèves. 20, c'est le nombre d'enfants actuellement scolarisés dans cette école qui accueille les petits de quatre communes: Laguinge-Restoue, Haux, Etchebar et Licq-Athérey. Le maintien des deux classes (8 niveaux en tout) tient donc à un fil.

2019 sudouest.

▶ Zuberoako laborantza

5 Zerbitzuak arriskuan

Etxenkoak, merak eta hautetsiak kolegiaren alde Atharratzen. Atharratzeko kolegioko 3gerrenkoen gela bat zerratzeko mehatxua dū. Berri horrek lotsa eta kexua sortzen dū, eta horren salhatzeko jüntatze bat antolatūrik izan da kolegiaren aitzinean !

Xiberoko Botza, 2024/02/16




Sud-Ouest

Xerka ezazu!

1. dok. - 3. dok.: Dokumentuak erabiliz, azal ezazu zergatik Zuberoa populazio dentsitate apaleko gunea den.
2. Argazkiaren zein elementuk erakusten du Zuberoako mendialdea dentsitate apaleko gunea dela?
3. Paisaiari begiraturik, zure ustez, zergatik jende guti da han bizi? (bizpahiru hipotesi idatz)
4. 3. dok.: Euskal mendialdearen dinamismo demografiko eskasa azal ezazu bizpahiru datu erabiliz.
5. 4. dok.: Zure ustez zergatik "medikuntza basamortua" aipatzen ahal da euskal mendialdearen kasuan? Fenomeno hori azal ezazu maparen laguntzaz. Testuaren arabera, zein dira Zuberoan desagertzen ari diren beste zerbitzuak?

6. 5. dok.: Zergatik manifestatu zuten Atharratzeko ikasleek 2023-2024 ikasturtean?

Gaitasuna: Eskema bat eraiki




Populazio dentsitate apala duten guneen zailtasunak eskema batean erakuts itzazu. Laguntza: Lehenik zailtasunak hiru multzo hauetan sailka: berezkoak, populazioari eta zerbitzu eskasari doazkionak.

II. Zuberoa balioztatzen da

Problematika

Nork eta nola balioztatzen ditu baserri gunek?

① Jarduera berriak



Xerka ezazu!

1. **dok.:** Zer dira Zuberoako jarduera ekonomiko berriak?
2. **dok.:** Zergatik populazio dentsitate apaleko gunek gero eta erakargarriago dira?
3. **dok.:** Hiztegiaren laguntzaz azal ezazu zertan dituzten Idoki eta Ossau-Iraty sareek laborariak laguntzen.
4. **dok.:** Azia elkarteak aurkez ezazu.
5. Azpimarra Azia elkarteak lantzen dituen argumentuak gazteak Zuberoan egon daitezen.

② Baserri guneen dinamika berriak

AUDAPk landa eremuen erakargarritasunari buruzko ikerketa sustatzen du, bereziki Akitaniako hegoaldean. Duela hiru urte, gaia ikertu da Okzitaniako Tolosako Unibertsitateko tesi baten bidez. Tesiak bizitegi-erakargarritasunaren arrazoiak zehazten ditu eta haien ulertzen laguntzen. Lehen ondorioen arabera, landa eremuan bizitzeko erabakien arrazoiak hauek dira: bizi ingurumenaren kalitatea, lurraren prezioa eta norberaren nahia.

L'Agence d'urbanisme Atlantique & Pyrénées (AUDAP) 29 mai 2024. Ikasek egokiturik

③ Laborantza bizi dadin



Kalitatezko laborantzaren, laborarien eta ingurumenaren babesteko desmartzak badira bai erakunde publikoetatik (AOP/AOC) bai pribatuetatik (IDOKI). Laborariek ekoizteko arau zorrotzak errespetatu behar dituzte.

④ Azia gazteen elkarteak



Zuberoa baserri eremua izan arren, industriaguneak ere baditu: 13.000 biztanleko 1.200 lanpostu inguru ditu industrian eta artisautzan. XIX. mendean espartingintzaren loraldia izan zen Maulen baina krisi handia gertatu zen 1980ko eta 1990eko hamarkadetan. Geroztik enpresaburuek eta tokiko hautetsiek lan egin dute industriaren berpizteko. Azia gazte elkarte bat da, kolegioko eta lizeoko ikasleei zuzendua, Euskal Herrian berean ikasteko dauden aukeren ezagutarazteko, eta Zuberoan bertan lanaren aurkitzeko erraztasunak emateko. Aziaren arrakasta tokiko kulturari eta hizkuntzari ematen dioten garrantzia da. Luzaz emigrazio lekua izan den leku horretan, gaur egun elkarteak Zuberoko sustraiei atxikirik, gazteak han berean egoteko lan egiten dute dinamika ezin hobean.

III. Erabilera gatazkak

Problematika

Zer arazo sortzen dituzte jarduera berriek?

① Turisten kopuruaren goratzea



Turismo 64

Larraineko herrian den Holtzarteko zubiak turistak saldo handian erakartzen ditu eta horrek segurtasun eta hordarkin kudeaketa arazoak sortzen ditu. Zuberoako leku bisitatuenetarik bilakatu da Holtzarteko zubia. Turistak trumilka jiteak 197 biztanle baizik ez dituen Larraineko herrira, Jean- Dominique Iriart auzapeza kezkatzen du. "Jende kopurua ikusirik, segurtasunak kezkatzen nau, bereziki ibiltari kopuru handia ikusirik, zubiranzko zirkulazioa handia delako. D26 errepidean zerbait gertatuko da azkenean eta deiadarra jo nahi dut. Hainbat kilometrotan bi auto lerro ikusten ditugu usu, bata goiti joaten eta bestea jausten. (...) 30 kilometrotan zikinontzi bakarra duen eremu bakarra dago, eta hau garbiki kontraesanean da garapen jasangarriarekin" azaldu du auzapezak.

Kazeta.eus, 2020/07/29

② Nola konpon erabilera gatazka?



Euskal mendietan artzaingoaren kudeatzaile guziek nekazaritza-interdependentzia aisialdi-jardueren arteko Garaziko Horixe dio Joseph Goyheneix sindikatuaren lehendakariak: "Turismoa behar dugu, baina turismoak behar gaitu. Euskal Herria polita da guk, laborariek, hola atxikitzen dugulako". (...) Eremu horien kudeaketa eraginkorra modu kolektiboan baizik ez da egiten ahal. (...). Epe luzeko xedea euskal mendiaren inguruko Eskualdeko Parke Naturalaren sortzea litzateke.

Constance Idiart. L'usage des espaces agricoles de la montagne basque : exemple du massif Baigura. Médecine vétérinaire et santé animale. 2018

Xerka ezazu!

1. dok.:

1. Zer gertatu zen 2020ko uztailean?
2. Zer argudio erabili zuen Larraineko auzapezak?

2. dok.:

3. Zein jardueren artean da oreka bilatu behar turismoa jasangarria izateko. (Argudia zure erantzuna)
4. Zer da erabilera gatazkaren konpontzeko proiektua?

IV. Euskal Mendia parke naturalaren proiektua

Problematika

Zertako sor Euskal Mendia parkea?



1 Euskal Mendia parkearen proiektua


Euskal Elkargoan adostu den mendi politika (...) plantan ezarriko dute ondoko urteetan, 2026ra arte. Paraleloki, Eskualdeko Parke Naturalaren xedea ere garatuko dute.

Elkargoan Euskal Mendiaren ordezkari eta Sarako auzapez den Battitt Labordek orekan ikusten du giltza: "Oreka desberdinak atzeman behar dira, mendia baliatzen dutenen artean laborantzari lehenatasuna emanaz. Oreka herri ttipientzat ere bai, ez dutelako ber diru kopurua. "Behar da partekatu, hor bizi diren jendeek ukan ditzaten besteen eskubide berak". (...) "Gure mendiaren indarraren eta berezitasunaren parte dira osoki euskararen eguneroko berezko erabilera eta transmisioa" (...) "emazteek baserrialdean duten lekua argitan ezarri eta indartzea" . Ipar Euskal Herriko eremua hunkitzen badu ere, gainera, mugaz gaindiko harremanetan barnatzea aipatu da txostenean. (...). Gehitu du laborariek dutela mendia garbi atxikitzen. Turismoarekin oreka bat xerkatzea erronka gisa markatzen du mendi politikak, baita "urte osoko turismoan oinarritua" litzatekeen ekonomia bat bultzatzea ere". Mendiko dossier handietan, bada bat azken denboretan aipatu eta hautsak harrotu dituen: Eskualdeko Parke Naturalaren proiektua, Larhun eta Larraine arteko mendi eskualdeak oro bilduko lituzkeena. Kontrako bozak altxatu dira jadanik, nahiz eta oraino xedea batere zehaztua ez izan, Laborderen erranetan.

Ipar Euskal Herriko Hitza. Berria 2023:06/16a



 Zer da Eskualdeko Parke Naturala?





**HERRI
ETA IBAR
DINAMIKOAK**

**(MUGAZ GAINDI)
ANTOLATUTAKO
ETA KUDEATUTAKO
LURRALDEA**



**KALITATE HANDIKO
LURRAK**

**AITORTU ETA AINTZAT
HARTZEA MEREZI
DUTEN EMATZEAK
ETA GIZONAK**



② Parkearen proiektuaren eragileak eta helburuak

Urte osoan mendiko biziaren bermatzeko eta jardueren arteko tirabirei buru egiteko, Euskal Elkargoak mendiko politika plantan ezarri du beste zenbait eragileren laguntzarekin (departamenduak, eskualdeak, estatuak eta Europako Batasuna). Euskal Elkargoaren mendi-politikaren helburuak hauek dira:

- Tokiko biztanleei herriak eta haranak irisgarri bihurtzea, laborarien, enpresen, zein artisauen instalazioa erraztuz, baita hurbileko zerbitzuak bermatuz ere, jendarte dinamikoa izatea belaunaldien arteko transmisioa bermatuz.
- Jendeen eta baliabideen babestea, klima aldaketak edo baldintza meteorologikoek eragin arriskuei buru eginez (mendiko suteak, uholdeak...).
- Mugaz gaindiko eguneroko bizitzaren bermatzea, azpiegitura eta kudeaketa komunak sortuz, eta zerbitzu hurbilak eskainiz. Bizikidetzaren bermatzea
- mendiko jarduera ekonomikoen artean, hala nola laborantzaren eta aisialdiaren artekoa. Mendiko ekonomia dibertsifikatuaren sustatzea, mendiko artzaintzan,
- egur ustiapenean, tokiko artisautzan eta urte osoko turismoan oinarritua; jarduera horien sustatzeko, etxaldean transmisioa erraztea, laborantzari lehentasuna emanez eta tokikoa lehenetsiz. Laborantzari doakion bioaniztasunaren zaintzea: fauna, flora eta ur-inguruneak.



Euskal Hirigune Elkargoaren argitalpena



Xerka ezazu!

1. dok.:

1. Nor da euskal mendiaren batzordearen ordezkaria? Zein dira politikaren helburu nagusiak?
2. Zein proiektuk ez du oraindik adostasun osoa lortu?
3. Zer dira parke naturalak eta zertako sortzen dira?

2. dok.:


4. Nor da proiektuaren kudeatzaile nagusia? Eta beste eragileak?
5. Kolore desberdinez testuan azpimarra jendeari, ekonomiari eta naturari doazkien helburuak.

V. Perspektiban ezartzea

Problematika


Zein dira Frantziako populazio dentsitate apaleko guneak?

① Frantziako populazio dentsitate apaleko guneak



Populazio dentsitate apaleko guneak bereziki Frantziaren ipar-ekialdetik hego-mendebaldera doan ardatzean ("hutsaren diagonal" deitua) eta mendikate nagusietan dira: Pirinioak, Erdialdeko Mendigunea eta Alpeak.

② Frantziako parke naturalak



Eskualdeko parke naturalak
Parke nazionalak
Itsasoko parke naturalak


Xerka ezazu! 1. eta 2.dok.: Dokumentuak pareka itzazu: Parke natural nazionalen kokapena begira ezazu. Zer lotura bada parkeen eta populazio dentsitate apaleko guneen artean? Zure ustez zergatik bada lotura hori?

Ezagutu behar diren hitzak:

- **Parke naturala:** bere ekosistemaren eta paisaiaren berezitasunarengatik eta balioarengatik legez babestua den eremu naturala. **Turismo jasangarria:** gain-turismoari edo masa-turismoari buru egiteko, tokiko natura, kultura eta jendea errespetatzea helburu duen turismoa.
- **AOP-AOC (appellation d'origine protégée / appellation d'origine contrôlée):** produktuen eta haien lurraldearen arteko lotura bermatzen duten labelak.
- **Erabilera gatazka:** lur okupazio edo baliabideengatik erabiltzaileen artean sor daitezkeen desadostasunak.

Gaitasunak

- Dokumentu azterketa
- Eskema baten eraikitzea
- Geografia saileko hiztegiaren erabiltzea



Dokumentuen iturriak: dokumentuak Euskal Hirigune Elkargoko argitalpeneetatik hartuak dira salbu besterik idatzia den kasuetan.